

GIL 123 Pirinioen hegoaldeko aurrezamalkadura Conchas de Haron



Conchas de Haroko zamalkadura.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 36' 59,93" N
Long.: 2° 50' 41,68" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 512.719,45 m
Y: 4.718.257,16 m



Nola iritsi

N-124 errepideko 134. kilometroko tunelen hego-ahoa eta errepide zaharraren ibilbidea.



Zamalkaduraren ondorioz hareharri tertziarioetan eratutako hedapen-antiklinalaren xehetasuna.

GILaren deskribapen laburra

Hego Pirinioko zamalkadura EAEn ikus daitekeen akzidente tektonikorik handiena da. Euskokantauriar arroaren eta Ebroren arroaren arteko muga ezartzen du, eta kate alpe-tarraren hasiera adierazten. EAEn, zamalkadura horrek erliebe garrantzitsuak ere eratzen ditu, hala nola Toloño mendilerroa edo Joar mendia. Bereziki erakargarria da Conchas de Haroko ebakia, oso ondo ikus daitezkeelako Kretazeoko itsas material zamalkatzaileak eta Ebroren arroko Tertziario kontinentaleko material zamalkatuak.

Tunelek kareharrizko bi gailur-azaleratze zeharkatzen dituzte; iparraldekoa Cenomania-rreroa da, eta hegoaldekoa, Coniaciarrekoa. Kretazeoko kareharri eta kalkarenitek oso okerdura handiak dituzte iparralderantz; horrek adierazten du alderantzikatuta daudela eta Oligozeno-Miozeno kontinentaleko material hareatsu eta lohitsuak zamalkatzen dituztela. Zamalkaduraren ondorioz, metakin kontinentalek eskala dekametrikoko antiklinal bat dute, errepidearen ezpondan aise ikus daitekeena. Antiklinal hori zamalkaduraitsu batera elkartutako hedapen-toles baten adibide ezin argiagoa da.

Behatzeko punturik onena

Errepide zaharretik, hau da, ibaiaz bestaldetik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 128, GIL 122, GIL 74.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 9, GIL 53, GIL 30, GIL 124.



Conchas de Haroko Goi Kretazeoko kareharriak.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				●
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Bilibioko basiliza.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- MAGNA, 170. zk.
- EVE, 170-I zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1984). *Geología de la Sierra Cantabria entre Palomares y Toloño (Alava)*. Arg.: Argitalpen Zerbitzua. Arabako Foru Aldundia, Gasteiz. 91 or.; mapa bat 1:25.000 eskalan. ISBN: 84-505-0480-5.
- Martínez-Torres, L. M. (1993). "Corte balanceado de la Sierra Cantabria (Cabalgamiento de la Cuenca Vasco-Cantábrica sobre la Cuenca del Ebro)". *Geogaceta*, 14, 113-115.
- Martínez-Torres, L. M. , Ramón-Lluch, R. eta Eguiluz, L. (1994). "Tectonic wedges: geometry and kinematic interpretacion". *Journal of Structural Geology* 16, 10, 1491-1494. [http://dx.doi.org/10.1016/0191-8141\(94\)90011-6](http://dx.doi.org/10.1016/0191-8141(94)90011-6).